



2020/21 ikasturtea, CORONAVIRUSen aurrean protokolo orokorra eta Itxaropen Ikastolaren jarduera-plana ikasturte berrirako

2020ko irailaren 1ean langileentzat, irailaren 7an ikasleentzat, 2020/21 ikasturtea hasiko da Itxaropen Ikastolan. Aurtengo ikasturtea oso baldintzatuta egongo da, jasaten ari garen pandemia dela eta. Joan den martxoaren erdialdean, Ikastola itxi behar izan genuen pandemiaren lehen boladaren aurrean, eta 2020ko irailean egoera zaila da oraindik, eta horrek gure Ikastola ahalik eta zorrotasun handienarekin kudeatzera behartuko gaitu, bai hezkuntza arloan, baita osasun arloan ere.

2020ko ekainaren 25ean, Eusko Jaurlaritzak **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO IKASTETXEETAN 2020-2021 IKASTURTEAN CORONAVIRUSAREN (SARS-CoV-2) AURKA JARDUTEKO PROTOKOLO OROKORRA** dokumentua bidali zigun. 2020ko abuztuaren 28an, Eusko Jaurlaritzak beste dokumentu bat bidali zigun: **2020/21 IKASTURTEAREN HASIERARAKO PROTOKOLO OSAGARRIA ETA IKASTETXEETAN COVID-19 KASUAK AGERTZEN DIRENERAKO HARTU BEHARREKO NEURRIAK**. Esku artean daukagun protokolo hau egiteko, aintzat hartu ditugu ekainaren 25eko Jaurlaritzaren agiria, abuztuaren 28ko Jaurlaritzaren dokumentua, Ministerioak eta Eusko Jaurlaritzak hartutako osasun-neurri orokorrak eta ikastolak iragan martxotik gaur arte metatutako esperientzia eta ezagutza.

1. Helburu orokorrak

- Bistakoa bada ere, ITXAROPENA Ikastola Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastola da. ITXAROPENAren helburua gure ikasleen heziketa da, baita koronabirus garaian ere. Pandemia kudeatzeko beharrezko egokitzapenak egin beharko ditugu, baina harekin batera bizi izanda ere, ikastolaren helburua gure ikasleen heziketa izaten jarraituko du. Ez dugu ahaztu behar ikuspegi hori.
- Ikastolak planteatzen duen lehen helburua **IRAKASKUNTZA PRESENTZIALA** maila guztietan bermatzen saiatzea da, ahal den guztietan, eta egoera ikusita beharrezkoak diren osasun neurriak hartuz.

- Pandemiak ITXAROPENA IKASTOLAKO KOMUNITATE osoaren KONPROMISO indartsua eskatzen du (ikasleak, familiak, irakasleak, irakasle ez diren langileak, sukaldeko langileak, begiraleak, garbiketako langileak.), eta ez bakarrik Ikastolaren barruan. Ez du ezertarako balio Ikastolan mila eta bat neurri eta protokolo hartzea eta ateratzen direnean arauak betetzea ahaztea. Kaltetuenak beti familiak izango dira, zenbat eta gehiago kutsatu Ikastolan, berrogeialdi gehiago egin beharko dira, eta horrek asko zailduko du kontziliazioa, eta noski osasunarentzat dituen ondorioak ahaztu gabe.

- Gobernuak eskatzen du ikastetxe bakoitzak 2020/21 ikasturtea 3 egoera ezberdinetan planifikatzea:

- Guztiontzako klase presentzialak.
- Heziketa mistoa: Zati presentziala eta zati telematikoa etxetik.
- Ikastolaren itxiera eta ikasle guztiak etxetik lanean jardutea.

3. aukera joan den ikasturtean bizi izan genuena da, martxoaren 12tik aurrera, Ikastolaren itxierarekin. Orduan bat-batean harrapatu gintuen, baina erantzuten jakin izan genuen. Gauza batzuk oso ondo egin ziren, eta beste batzuk argi eta garbi hobetu behar dira. Desberdintasuna da une honetan prestatuta harrapatzen gaituela, Ikastola hobeto hornituta dago baliabide teknologikoetan eta irakasleen esperientzian, itxierari erantzuna emateko. Ez da desiragarria, baina beharrezkoa balitz badakigu nola erantzun.

2. aukera, mistoa, joan den maiatzean bizi izan genuena da, DBH4. mailako ikasleek Ikastolan aurrez aurreko eskolak izan zituztenean eta gainontzekoek ez. Hori ere ez da alternatiba ideala, baina beharrezkoa balitz aplikatuko dugu. Aurreko ikasturtearekin alderatuta, irizpide-aldaketa garrantzitsu bat dago: aukera hori aplikatu beharko balitz, etxera joango lirartekeen eta telematikoki lan egingo luketen lehen taldeak nagusienak izango dira, eta horrela, hurrenez hurren nagusienetik gazteenetara. Arrazoia sinplea da, nagusiek denek dute euren Chromebook-a, eta etxetik lan egiteko nahikoa autonomia dute.

1. aukera, aurrez aurreko klaseak talde guztientzat ideala da, baina baita zailena ere.

Galdera hurrengoa da: **Prest al dago Itxaropena Ikastola koronabirusaren pandemia kudeatzeko, ziklo guztietarako aurrez aurreko eskolak bermatuz?**

Gure ustez, bai. Gure Ikastola 4 eraikin independentetan antolatuta dago, eta horrek aukera ematen digu 5 burbuila eremu autonomoetan antolatzeko, elkarren artean loturarik izan gabe, eta burbuila eremu horiek jolastokian eta jantokiko zerbitzuan ere mantendu daitezke. Horrela, Ikastolak ikasturtea irailaren 7an has dezake, eta, astebete geroago, bere goizeko eta arratsaldeko ohiko ordutegia mantendu, jantokiko zerbitzuarekin.

Hori guztia ordutegi aldaketa gutxi batzuekin bakarrik.

2. 2020/21 ikasturterako Kontingentzia Plana

Aurrez aurreko eskolak irailaren 7an hasiko dira. Ordurako, Ikastola 5 burbuila arlotan antolatuta egongo da:

- 1. Burbuila:** Haur Hezkuntza, lehenengo zikloa: HH0, HH1 eta HH2.
- 2. Burbuila:** Haur Hezkuntza, bigarren zikloa: HH3, HH4 eta HH5.
- 3. Burbuila:** Lehen Hezkuntza, lehen zikloa: LH1, LH2 eta LH3.
- 4. Burbuila:** Lehen Hezkuntza, bigarren zikloa: LH4, LH5 eta LH6.
- 5. Burbuila:** Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH)

Zer da BURBUILA EREMU bat eta zergatik antolatzen da Ikastola horrela?

BURBUILA eremu bateko ikasleek euren artean harremana izan dezaketen baina gainerako burbuiletako ikasleekin inolako harremanik izan ezin dezaketen eremua da. Horrela antolatzen da Ikastola, positibo bat emanaz gero, kutsatzeko aukerak burbuilan bertan itxi daitezen.

Adibide bat jar dezagun:

Demagun 4. burbuilan positibo bat sortzen dela, eta horren barruan LH4ko A gelan. Gela horretako ikasle guztiak kontaktu estuak direla ulertzen da eta beraz, guztiek 10-12 eguneko berrogeialdia pasatu beharko dute euren etxeetan eta PCR proba pasatu.

PCR probak negatiboak badira eta positibo bakarria lehenengoa bada, 10-12 eguneko gelaren konfinamendua baino ez da hartuko, eta konfinamendua amaitutakoan Ikastolara itzuliko da modu presentzialean. Kasu horretan, burbuilaren gainerako gelek ez dute konfinamendurik egingo, eta beren klase presentzialekin jarraituko dute.

LH4 A-ko ikasleei egindako PCR probetan positibo gehiago ateratzen badira, zuzenean 10-12 eguneha haien etxeetan konfinatuta geratuko dira 4. burbuilako ikasle guztiak, hau da, LH4, LH5 eta LH6ko ikasle guztiak, eta guztiei egingo zaizkie PCR probak. Konfinamendua amaitutakoan, beren geletara eta Ikastolan duten burbuilara itzuliko dira, osasun arduradunek hala adierazten badute. Haien etxeetan dauden bitartean, klase telematikoekin jarraituko dute.

Bost burbuilen arteko isolamendua behar bezala mantentzen bada, Ikastolan agerraldiren bat sortzen denean burbuila bateko ikasleei bakarrik eragingo die, eta ez gainerakoei. Horri esker, agerraldiek ez dute Ikastola osoan eragina izango, burbuila zehatz bati bakarrik eta horrela besteek aurrez aurreko klaseekin jarraitu ahal izango dute.

2.1. Kontingentzia-plana: Ikastolako sarrerak eta irteerak

Pandemiak Ikastolako sarrera-irteeretan aldaketak egitera behartu gaitu, baina aldaketa garrantzitsuena izango da familiek barneratu behar izango dutela ezin izango direla mantendu ohiko usadio eta ohiturak. Bai klaseak amaitzean patioan egotearena, ordutegi malguetan, ez eta ikasleak ekarri eta jasotzerakoan ere.

Hauek izango dira arau orokorrak:

- Ikastolako patio guztiak itxita egongo dira eskola ordutegitik kanpo. 16: 45ean, ikasle guztiak Ikastolatik atera ondoren, erdiko jolastokia itxiko da.
- Ikastolako 5 BURBUILEN isolamenduari eusteko, Ikastolako ikasleek edo langileek kanpoko inor ezin izango da barrura sartu. Senitartekoei ezin izango dute seme-alabak gelara eraman, ez eta gelara sartu ere. Edozein arrazoi dela-eta ohiko ordutegitik kanpo sartu edo irten behar badu, harreratik igaroko da, eta handik dagokion tutoreari jakinaraziko diote. Tutorea iritsi arte, harrera gunearen kanpoaldean itxaron beharko du senideak. Harrera edo idazkaritzara sartzeko, derrigorrezkoa izango da maskara erabilitzea. Arau honi edozein salbuespen egiteko, Ikastolako zuzendariaren berariazko baimena beharko da.

- **AUTOBUS** Aren ordutegia 10 minutu aurreratuko da, bai goizean Ikastolara etortzeko eta baita arratsaldeko irteeran ere. Helburua autobuseko ikasleak Ikastolara 8:40etarako iristea izango da, eta 8:50erako denak haien geletan egotea. Arratsaldean, 16:15ean, autobuseko erabiltzaileak geletatik aterako dira eta 16:25erako bi autobusak Ikastolatik irtengo dira.
- **ERDIKO PATIOA** eta **KIROLDEGIA** guneetan banatuta egongo da, eta Ikastolak horretarako dagozkion hesiak erosi ditu. Horren arrazoia da bi burbuiletako ikasleek erdiko patioa edo kiroldegiko espazioa partekatu beharko dutela une batzuetan (ahalik eta gutxien izan daitezten saiatuko gara). Hesiakin burbuila desberdinetako ikasleen arteko kontaktua eragozten saiatuko dira. Horretarako kartelak eta dagozkien seinaleak ere jarriko dituzte.

2.2. 1. BURBUILA: HH0-1 eta 2 (Haurreskola)

Lehen burbuilak, haurreskolak erabiltzen duen espazioa hartuko du.

- **Ordutegia:** Ohiko ordutegia 8:45etik 16:15era izango da, salbuespen garrantzitsu batekin: 8:45etik 9:15era haurreskolako atea itxita egongo da, familiek ezin izango dute haien haurrik ekarri ordu erdi horretan. Zergatia? Ordu erdi horretan gainerako taldeak Ikastolan sartu behar direlako eta pandemia bitartean oso garrantzitsua da sarreran ez batzea haurrak, umeen kotxeak eta familiak.
- **Egokitzapena** igaro ondoren, (egokitze aldirako protokolo espezifiko bat emango zaie familiei), familiak beren txikiarekin etorriko dira haurreskolako ateraino, baina ezingo dira sartu, txirrina jo beharko dute eta andereñoa aterako da harrera egitera. Gauza bera jasotzeko orduan. Pandemiak irauten duen bitartean, familiak ezingo dira haurreskolara sartu egokitzapena igaro ondoren.
- **Patioa:** Eguraldi onak irauten duen bitartean, ahalegina egingo da haurrak ahalik eta denbora gehien kalean egon daitezten, horretarako prestatutako guneetan. Kanpoan erabiliko diren jostailuak eta materialak haurreskolatik aterako dira zuzenean, eta amaitzean andereñoek edo begiraleek haurreskolara itzultzeko material guztia jasoko dute, garbitu eta desinfektatzeko. Beste burbuila bateko haurren jostailu edo materialik ezingo dute erabili.

- **Jantokia:** Jantokirako prestaketak 11:45ean hasiko dira. Jantokia ez da haurreskolako ohiko jangela izango, bertako geletako bat egokituko da. Ohiko jantokiaren espazioa HHko 2. ziklorako izango da. Behin jantokia amaituta, geletara itzuliko dira lokuluska egiteko.

2.3. 2. BURBUILA: HH3-4-5 (Haur Hezkuntza)

Gune honek, gaur egun hartzen duen tokia hartuko du, betikoa.

- **Ordutegia:** Ohiko ordutegia 8:45etik 16:15era izango da. Pandemiak irauten duen bitartean, ziklo honetan sartzeko ordutegi malgua kentzen da, eta haur guztiak 8:45ean sartu beharko dute. Familiak ezingo dira geletan sartu. Edozein arrazoi dela medio, norbait ohiko ordutegitik kanpo etortzen bada, harreran itxaron beharko du dagokion andereñoa etorri arte.

- **Sarrera eta irteera:** Ziklo honetako ikasle guztiak erdiko patioetik sartuko dira Ikastolara, eta 8:45erako gelan egon beharko dute. Familiek seme-alabei patio nagusira lagun diezaiekete. Hemen, andereñoen edo begiraleen zain egon beharko dute, horiek arduratuko baitira haurrak gelaraino eramateaz erdiko eskaileratik; familiek ezingo dute eskailera horretara sartu. Irteera antzekoa izango da, baina alderantziz: andereñoek edo begiraleek erdiko eskaileratik gidatuko dituzte haurrak jolastokiraino 16:15ean, eta han familiek jasoko dituzte. Irteerarako lehentasuna izango dute autobus zerbitzua erabiltzen duten haurrek. Familiak ezingo dira jolastokian geratu seme-alabekin, 16:30ak baino lehen utzi beharko dute. Zergatia? 16:30ean DBHko ikasleek erdiko eskaileratik eta LHko 2. zikloko ikasleek eskailera urdinetik irtetea aurreikusita baitago, eta ez da komeni haien artean kontakturik egotea, batez ere HHko ikasleek maskara eramateko betebeharririk ez dutenean.

- **Patioa:** Ziklo honetako ikasleek 10:15etik 10:50era bitartean izango dute erdiko patioa, eguraldi ona egiten duenean, eta eguraldi txarra egiten duenean goiko frontoia erabiliko dute. Patioan erabilitako jostailuak eta materialak beren ziklotik aterako dituzte, eta patioa amaitzean haiek jaso, garbitu eta desinfektatzeko. Ezingo dute jostailurik edo materialik partekatu beste ziklo batzuetako ikasleekin.

- **Jantokia:** HH3ko ikasleak 12:00etan hasiko dira jantokirako prestatzen, 12:15erako haurreskolako jantokira eramango dituzte eta jantokia 12:50ak arte bakarrik izango dute beraiantzat. Ordu horretan, bakoitzak bere gelara eramango ditu siesta egiteko.

HH4 eta HH5eko ikasleak 12:00etatik 13:00etara frontoian egongo dira. 13:05ean, haurreskolako jantokira eramango dituzte, eta aurretik garbitu eta desinfektatu egingo dute. Bazkaldu ondoren, 13:45ak aldera geletara eramango dituzte siesta egiteko.

2.4. 3. BURBUILA: LH1-2-3 (Lehen Hezkuntzako lehenengo zikloa)

Gune honek, gaur egun hartzen duen tokia hartuko du, betikoa.

- **Ordutegia:** Goizeko 9:00etatik arratsaldeko 16:30era. Ikasleak 2. eraikineko alboko eskaileretatik igoko dira, Ikastolaren ekialdeko muturrean, eta 9:00etarako dagokien gelan egon beharko dute. Familiak ezingo dute geletara sartu, ez eramateko, ezta seme-alabak jasotzeko ere. Edozein arrazoirengatik ohiko ordutegitik kanpo iristen badira, harreran andereñoaren argibideen zain egon beharko dute.

- **Sarrera eta irteera:** Ziklo honetako ikasle guztiak Ikastolara sartuko dira maskara jarrita eta 2. eraikineko alboko eskaileratik, gelan egon beharko dute 9:00etarako. Familiak eskaileraraino lagun diezaiekete seme-alabei, eta leku berean jaso. Autobuseko erabiltzaileak 8:45ean iritsiko dira Ikastolara maskara jarrita dutela eta, begirale batekin batera, 2. eraikineko alboko eskaileratik sartuko dira geletara. Arratsaldean, autobuseko erabiltzaileek 16:15ak aldera aterako dira geletatik alboko eskaileratik, andereñoak edo begiraleak lagunduta, eta autobusera eramango dituzte. Irteerarako lehenetara izango dute autobus zerbitzua erabiltzen duten ikasleek. Familiak ezingo dira jolastokian geratu seme-alabekin, 16:30ak baino lehen utzi beharko dute. Zergatia? 16:30ean DBHko ikasleak erdiko eskaileratik eta LHko 2. zikloko ikasleak eskailera urdinetik ateratzea aurreikusita dagoelako, eta ez da komeni euren artean kontakturik egotea.

- **Jolastokia:** Ziklo honetako ikasleek eguraldi ona egiten badu erdiko patioa izango dute 11:00etatik 11:30era arte, eta eguraldi txarra egiten badu kiroldegia erabiliko dute. Patioan erabilitako jostailuak eta materialak haien ziklotik atera beharko dituzte, eta patioa amaitzean jaso, garbitu eta desinfektatzeko. Ezingo dute jostailurik edo materialik partekatu beste ziklo batzuetako ikasleekin.

- **Jantokia:** LH1-2 eta 3ko ikasleak 12:30ean jaitsiko dira jantoki nagusira, andereñoak eta begiraleak lagunduta, pasabidetik eta eskailera nagusitik. Jantokia beraienez bakarrik egongo da, ez da beste burbuila bateko ikaslerik egongo. 13:05 aldera, bazkaltzen amaitzean, jolastoki nagusira aterako dira (eguraldi txarra egiten badu kiroldegira), eta bertan jolastu ahal izango dituzte.

Ordu eta tarte horietan, ez dute harremanik izango beste BURBUJA eremuetako ikasleekin. 14:20an, andereñoak edo begiraleak geletara eramango ditu 2. eraikineko alboko eskaileratik.

2.5. 4. BURBUILA: LH4-5-6 (Lehen Hezkuntzako bigarren zikloa)

Gune honek, gaur egun hartzen duen tokia hartuko du, betikoa, hau da, eraikin berria.

- **Ordutegia:** Goizeko 9:00etatik arratsaldeko 16:30era. Ikasleak alboko eskaileretatik igoko dira (eskailera urdinak), eraikin nagusiaren mendebaldeko muturrean (igerilekuetatik hurbilen dagoena). 9:00etarako dagokien gelan egon beharko dute. Familiak ezingo dute geletara sartu, ez eramateko, ezta seme-alabak jasotzeko ere. Edozein arrazoirengatik ohiko ordutegitik kanpo iristen badira, harreran itxaron beharko dute andereñoa iritsi arte.

- **Sarrera eta irteera:** Ziklo honetako ikasle guztiak Ikastolara maskara jarrita eta eskailera urdinetik sartuko dira eraikin berrira eta 9:00etarako gelan egon beharko dute. Familiak patio nagusira lagun diezaiekete seme-alabei, eta leku berean jaso. Autobuseko erabiltzaileak 8:45ean iritsiko dira Ikastolara, maskara jarrita, eta andereño edo begirale batek lagunduta, eskailera urdinetik sartuko dira geletara. Arratsaldean, autobuseko erabiltzaileak 16:15ak aldera aterako dira geletatik, eskailera urdin beretik, andereñoak edo begiraleak lagunduta, eta autobusera eramango dituzte. Irteerarako lehentasuna izango dute autobus zerbitzua erabiltzen duten ikasleek. Familiak ezingo dira jolastokian geratu seme-alabekin, 16:30ak baino lehen utzi beharko dute. Zergatia? 16:30ean DBHko ikasleak erdiko eskaileratik irtetea dago aurreikusita, eta ez da komeni haien artean kontakturik egotea.

- **Patioa:** Ziklo honetako ikasleek eraikin berriko patioa izango dute soilik erabiltzeko, baita berdegunea ere, 11:00etatik 11:30era, eguraldi ona egiten badu eta eguraldi txarra egiten badu, eraikinaren beheko aldean dagoen frontoia. Patioan erabilitako jostailuak eta materialak haien ziklotik atera beharko dituzte, eta patioa amaitzean jaso, garbitu eta desinfektatzeko. Ezingo dute jostailurik edo materialik partekatu beste ziklo batzuetako ikasleekin.

- **Jantokia:** LH4, 5 eta 6ko ikasleak 12:30ean aterako dira haien eraikineko patioa, 13:10era arte. 13:15ean jantoki nagusira jaitsiko dira, andereño edo begiralearekin eskailera urdinetik. Jantokia beraientzat bakarrik egongo da, ez da beste burbuila bateko ikaslerik egongo.

13:45ak aldera, bazkaltzen amaitzean, eskailera urdinetik itzuliko dira eraikin berrira, jolastoki eta berdegunean jolasteko (eguraldi txarra egiten badu, frontoira). Ordu eta tarte horietan, ez dute harremanik izango beste burbuja eremuetako ikasleekin. 14: 30ean haien geletara itzuliko dira.

2.6. 5. BURBUILA: DBH1-2-3-4 (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza)

Burbuila honek eraikin nagusiko 3. solairuko espazioak erabiliko ditu, betikoa.

- **Ordutegia:** Goizeko 9:00etatik arratsaldeko 16:30era. Ikasleak eraikin nagusiko Erdiko Eskaileratik sartuko dira geletara, 9:00etarako dagokien gelan egon beharko dute. Familiak ezingo dute geletara sartu, ez eramateko, ezta seme-alabak jasotzeko ere. Edozein arrazoiengatik ohiko ordutegitik kanpo iristen badira, harreran itxaron beharko dute irakaslea iritsi arte.

- **Sarrera eta irteera:** Ziklo honetako ikasle guztiak Ikastolara sartuko dira maskara jarrita dutela, eta eraikin nagusiko Erdiko Eskaileratik sartuko dira geletara, eta gelan egon beharko dute 9: 00etarako. Familiak patio nagusira lagun diezaiekete seme-alabei, eta leku berean jaso. Autobuseko erabiltzaileak 8:45ean iritsiko dira Ikastolara, maskara jarrita, eta eskailera nagusitik sartuko dira geletara. Arratsaldean, autobuseko erabiltzaileek 16:15ak aldera aterako dira haien geletatik eskailera nagusitik, irakasleak edo begiraleak lagunduta, eta autobuseraino eramango dituzte. Irteerarako lehenetsia izango dute autobus zerbitzuko erabiltzaileak. Familiak ezingo dira jolastokian geratu seme-alabekin, 16:30ak baino lehen utzi beharko dute. Arrazoia? 16:30erako aurreikusita dago LHko ikasleak eskailera urdinetik ateratzea, eta ez da komeni haien artean kontakturik egotea.

- **Patioa:** Ziklo honetako ikasleek eguraldi ona egiten badu, Erdiko patioa izango dute 12: 00etatik 12:20ra arte bakarrik erabiltzeko eta eguraldi txarra egiten badu, kiroldegia. Patioan erabilitako jostailuak eta materialak haien ziklotik atera beharko dituzte, eta patioa amaitzean jaso, garbitu eta desinfektatzeko. Ezingo dute jostailurik edo materialik partekatu beste ziklo batzuetako ikasleekin.

- **Jantokia:** DBH1, 2, 3 eta 4ko ikasleak 13:15ean jaitsiko dira kiroldegira eskailera urdinetatik 13:55 arte. 13: 55ean Jantoki nagusira jaitsiko dira, irakasleak edo begiraleak lagunduta. Jantokia beraienez bakarrik egongo da, ez da beste burbuila bateko ikaslerik egongo. 14:25 aldera, bazkaltzen amaitzean, eskailera nagusitik itzuliko dira haien geletara. Ordu eta tarte horietan, ez dute harremanik izango beste burbuja eremuetako ikasleekin.

CORONAVIRUSaren KUDEAKETA ITXAROPENA IKASTOLAn

Jarraibide orokorrak:

Ikasle batek, osasun egoera ona badu, **IKASTOLARA JOAN BEHAR DU**.

Ikasle batek **EZ DU IKASTOLARA JOAN BEHAR** hurrengo egoeratan:

- PCR edo beste proba diagnostiko baten emaitzaren zain dagoenean.
- Isolamenduan badago, PCR bidez diagnostikatutako koronabirus bidezko infekzio bat duelako.
- Berrogeialdian badago, COVID kasu baieztatu baten kontaktu estua delako.
- Koronabirus bidezko infekzioarekin bateragarriak diren sintomak dituelako.

Nor da “kasu susmagarri” bat?

Arnas infekzioko koadro kliniko bat duen edozein pertsona, edozein larritasun bat-batean agertzen dela ere, besteak beste, sukarra, eztula edo aire-faltaren sentrazioa duena. Beste sintoma batzuk, hala nola eztarriko mina irenstean, usaimena edota gustua galtzea, muskuluetako minak, beherakoak, toraxeko mina edo zefaleak, irizpide klinikoaren arabera, COVID-19 bidezko infekzio-susmoaren sintomatizat ere har daitezke.

Zer da harreman estu bat?

BURBUILA egonkorraren eremuan, zikloko ikasle guztiak beste ikaskideekiko harremaneko pertsonak hartuko dira eta harreman estuko taldeztat gela bereko taldekoak izango dira. Ikastolan eta egungo testuinguruan, kasuen detekzio goiztiarra eta haien isolamendua, baita kontaktu estuenak ere, segurtasun ingurune bat mantentzeko eta helburu hezitzaile eta pedagogikoak lortzeko neurri garrantzitsuenetako bat da.

Ikasleren batek Ikastolan COVIDekin bateragarriak diren sintomak baditu:

- 2 urtetik gorakoa bada eta ez badauka maskarillarik, maskara kirurgiko bat emango zaio eta beste bat zainduko duen helduarentzat, gurasoak edo tutoreak iritsi arte.
- Bakarka egoteko gela batera bideratuko da ikaslea. (Ikastolako harrera-gunean horretarako gela bat egongo da, eta, beharrezkoa izanez gero, BURBUILA bakoitzean horrelako gela bat bideratuko da.) Gela horrek aireztapen egokia izango du, eta poltsa duen pedalezko paperontzi bat izango du, maskara eta erabili eta botatzeko zapiak botatzeko.

- Familiari jakinaraziko zaio bere osasun-zentroarekin edo Osakidetzako erreferentziazko telefonoarekin harremanetan jarri behar duela, bere kasua ebaluatu, PCR eskaera erabaki eta, hala badagokio, etxeko isolamendua adieraz dezan, emaitza jakin arte. Larritasun-zantzuak baditu, 112 zenbakira deituko da.
- PCR bat egingo zaio 24 orduko epean.

Ikasle batek ikastolatik kanpo COVIDekin bateragarriak diren sintomak baditu:

- Gurasoak edo tutoreak harremanetan jarriko dira beren osasun-zentroarekin edo osasun-zerbitzuen erreferentziazko telefonoarekin, haien kasua ebaluatu dadin, PCR eskaera erabaki dadin eta, hala badagokio, etxeko isolamendua adieraz dadin, emaitza jakin arte. Larritasun-zantzuak baditu, 112 zenbakira deituko da.
- PCRa 24 orduko epean egingo da

Kasu hori baieztatzen bada, isolamenduak jarraituko du, eta haren osasun-zentroko medikuntza/erizaintzako profesionalak egingo du jarraipena.

Ikasle batek infekzio aktiboa duela baieztatzen bada:

Kontaktu estuztat jotako ikasleei berrogeialdia adieraziko zaie (salbu eta PCR bidez egiaztatutako koronabirus bidezko infekzio bat izan badute edo aurreko 6 hilabeteetan proba serologiko positibo bat badute).

Baieztatutako kasu bat Ikastolara itzuli da

Ospitaleratzeko irizpiderik izan ez duten eta prozesu arina izan duten ikasleek gutxienez 10 eguneko isolamendua izango dute, betiere sintomarik gabeko 3 egun badaramate. Osasun-zentroko profesionalek jarraipena egingo dute eta alta adieraziko dute. Ez da beharrezkoa kontrolerako PCR bat ikastetxera itzultzeko.

Ikastolako irakasleen eta irakasle ez diren langileen kasuak kudeaketa.

Kasuen kudeaketa Laneko Arriskuen Prebentzio Zerbitzuak egingo du. Kontaktu estuak agertzea minimizatuko da 1,5 m-ko distantziako prebentzio-neurrien bidez, maskara erabiliz eta espazioak aireztatuz.

Ikastolak, datuak babesteko arauak errespetatuz, ikasleen eta familien datuak eskuratzeko aukera emango die osasun-arduradunei, ikasgeletan egon daitezkeen kasu positiboen aurrean ahalik eta gehien bizkortzeko.